

Euskal Kantagintza Berria (1961-1972)¹

Euskal Kantagintza Berria, 1960.eko eta 1980.eko hamarkaden artean euskarazko kantagintzan garatu zen mugimenduari deitzen zaio. Zehazki, Mixel Labegueriek 1961ean atera zuen diskoa hartzen da Euskal Kantagintza Berriko lehendabiziko lantzat.

1960.eko hamarkada aldaketa garaia izan zen musika-munduarentzat Europa osoan. Ekonomiak goranzko bidea hartu zuen eta horrek kultura eguneroko kontsumo-gai bilakatzea ahalbidetu zuen. Hori beraz, Euskal Herrian jaiotzera zihoan mugimenduaren alde. Horrekin batera, gerora zeresan handia emango zuten kantari hegoamerikar eta europarren eraginak iristen hasiak ziren Euskal Herrira: George Brassens, Bob Dylan, Joan Baez, Violeta Parra, Atahualpa Yupanqui eta Victor Jara-renak, besteak beste. Denak ere, garai hartako gazte askoren eta musikari askoren artean ezagun eta maitatu bihurtu ziren kantariak. Hala, eredu berri horiei guztiei euskaraz heltzeko saio ugari egin ziren, besteak beste, Soroa laukotearen, Lourdes Iriondoren eta Benito Lertxundiren eskutik.

Euskal Kantagintza Berria fenomeno modura

1961ean Mixel Labegueriek kaleratutako diskoa era klandestinoan zabaldu zen Hego Euskal Herrian barrena. Euskal Herriaren zapalkuntzaz, poztasunaz eta saminez ziharduten kantu haiek eragin handia izan zuten euskal gizartean eta jendea elkartu eta kantatzera bultzatzeko akuilu izan ziren. Alderik alde zabaldu ziren Labeguerieren ahotsean ezagun egin ziren kantak: *Haurtxo-haurtxoa*, *Gure astoa Balaam*, *Gure katua Pitxitxi*, *Gu gira Euskadiko*, *Dilin, dalan*, *Bakearen urtxoa*, *Gudari euskaldunaren kantua* eta *Primaderako liliak*.

¹ Euskal Kantagintza Berriaren amaiera 1980.eko hamarkadan iritsi zen aditu askoren ustean. Guk, ordea, 1972ra artekoa bakarrik bildu dugu oraingoz, aurrera begira, informazioa gehitzen joateko asmoz.

Kantu horiekin batera jaio zen mugimenduak, ordea, kantatze soila baino helburu orokorragoa eta, era berean, sakonagoa zeukan. Euskal Herriaren eta euskal kulturaren galeraren aurkako erreakzioa zenez gero, kulturaren berreskurapenean zeukan jomuga. Hala, euskal kantu zaharrak ahaztutakoen kutxatik ateratzea izan zen Euskal Kantagintza Berrian ibili zirenek egin zuten lan garrantzitsuenetako bat. Josu Amezaga EHUko irakasleak bere doktorego-tesian (Josu Amezaga, 1994) azaldutakoaren arabera, “Euskal Kantagintza Berriaren azpian bestelako mugimendu sakonago eta zabalago bat ikusi behar dugu, garai hartan modan zeuden musika moldeez harago: euskal nazionalismoaren eta kulturaren berriztatze eta berpizkundearen mugimendua alegia”. Izan ere, ezin da ahaztu 1960.eko hamarkadako testuinguruak berarekin zekarrena, politika eta gizarte esparruetan batik bat. Esate baterako, garai haietan birstortu eta hedatu ziren Ikastolak eta baita ETA ere.

Kantagintza berriak hasiera-hasieratik eduki zuen gizartean zeuden arazoekiko konpromisoa. Josu Amezagaren arabera, “Euskal Kantagintza Berria, beraz, nazio-arazoari lotuta agertzen da sortze beretik”. Hortik abiatuta hedapen zabala izan zuen mugimendu hark. Hasieran Ez Dok Amairu taldearen eskutik eta ondoren, taldearen inguruan sortutako kantarien bidez. Mugimendu haren adierazpen ezagunena izan zen akaso Ez Dok Amairu, baina ez bakarra. Talde horrez gain, beste talde asko sortu ziren mugimendu horren adar ezberdinak bailiren; esate baterako, Bizkaian Herrikoi taldea sortu zen Maite Idirin, Bittor Egurrola, Beti Alai eta Zintzoak tarteko; Ez Dok Amairun ibilitako kantari-talde batek Zazpiribai sortu zuen eta, Iparraldeko beste talde batek Ortzikei.

Euskal Kantagintza Berrian eragin handia izan zuten musikaren eta kantuen hedapenean lan egin zuten beste talde batzuek ere: Herri Gogoia, Cinsa eta Artezi diskoetxeek eta Herri Irratiak, besteak beste. Horien guztien laguntzaz disko asko kaleratu zituzten kantari berriek. Aitzitik, emanaldiak edo ikuskizunak izan ziren Euskal Kantagintza Berri haren ezaugarririk berezkoenak. Emanaldi haiek euskal kulturaren agerpen-leku ziren eta beren bidez lortzen zuten euskal kontzientzia zabaltzea. Gainera, mugimenduaren hasieran batez ere, kantaldiak herri-mugimenduarekin elkartrukeak izateko parada ezin hobeak ziren, gizarteko arazoak plazaratzeko gune alegia. Beraz, kantaldi haiek kanturako plaza soil baino askoz ere gehiago izan ziren, “eguneroko arazoei aurre egiteko hizkuntza eta kultura ziren” (Josu Amezaga, 1994). Kantariek

hartutako konpromiso horiexek, ezarritako sistema politikoaren aurka aritzeak alegia, berehala ekarri zizkieten arazoak eta hamaika trikimailu erabili behar izan zituzten garai hartan hain presente zegoen zentsura ekiditeko.

Franco hil, testuingurua aldatu eta 1980.eko hamarkadako musika-molde berriak agertzearekin batera, Euskal Kantagintza Berriak beherakada jasan zuen eta konturatzerako, berria zahar bilakatu zen.